

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2019ko 1. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

2019ko hastapenean, EAEko ekonomiak %2,3 handitu zuen BPGa urte arteko tasan. Erritmo esanguratsu horrek hamarren bakar batean moteldu du aurreko hiruhilekoaren balioa. Beraz, ekonomiaren moteltzeak aurrera jarraitzen du, baina prozesu hori oso nabarmen galgatu da. Halaber, Eustaten lehen hiruhilekoaren zenbatespenak bi hamarrenetan gaintitu du Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspena. Beraz, 2019ko batez besteko hazkundea %2,0ko langa zertxobait gaintutako duelako ideia sendotuta geratu da. Nazioarteko alderaketa bat eginez, EAEko ekonomia oraindik Europar Batasuna (%1,5) eta Eurogunea (%1,2) baino gehiago hazten ari da, eta puntu bat baino gehiago ateratzen die Alemaniako (%0,7), Frantziako (%1,2) eta, batez ere, Italiako (%-0,1) hazkunderi. Aldi berean, ez dago tarte handirik Espainiako tasaren aldean (%2,4).

Europarekiko hazkunde diferentzialak kanpo arloak EAEko ekonomiari egiten dion ekarpen negatiboa areagotu du, lau hamarrenetara iritsi arte. Balio hori apal samarra da oraindik, baina bertan behera utzi du 2017an eta 2018an, urteko batez bestekoan, bizi zen oreka, bi urte horietan hamarren bakarra kendu zuelako. Nazioarteko merkataritza harremanen galgak ondasun eta zerbitzuen esportazio errealak %1,4 murriztu zituen urte arteko tasan, lehen hiruhilekoan. Inportazioak, berriz, %0,9 gutxitu ziren 2018ko epealdi beraren aldean.

Barne eskariak egonkortasun handia erakutsi zuen 2019ko hastapenean eta aurreko hiruhilekoan lortutako gehikuntza tasa (%2,6) berdindu zuen. Orobat, erritmoaren egonkortasun hori bi osagai nagusietara hedatu da. Izan ere, kapital eraketa gordinak %4,1eko gehikuntza eskuratu zuen, aurreko bi epealdietako balioetatik oso hurbil. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioan (%3,3) suspertzea hauteman da, aurreko hiruhilekoetako moteltzea irauliz. Aitzitik, gainontzeko inbertsioak bere bultzada moteldu du, nahiz eta oraindik oso maila hedakorrean (%4,7) kokatzen den.

Beste aldetik, azken kontsumoko gastua %2,1 handitu zen lehen hiruhilekoan, aurreko balioen antzera. Agregatu horretan, kontsumo pribatuak indarra galdu duela nabaria da, bere bizitasuna %2,2ra apaldu baitu. Administrazio publikoen kontsumoak, ordea, %2,0ra areagotu du hazkunde tasa. Beraz, EAEko familiek beste urrats bat eman dute beren gastua errenta erabilgarriaren bilakaerara, bereziki enplegu sorrerara eta soldata errealean igoerara, egokitzeko. Portaera horrek gehiegizko zorpetzearen mamua uxatzen du eta ekonomiaren garapenean laguntzen du.

Sektoreen ikuspegitik, 2019ko lehen hiruhilekoaren ezaugarri nagusia industriaren balio erantsiaren hazkundera da, aurreko epealdian bizi zuen %0,2ko beherakadaren ondoren %0,4ko igoera apala eskuratu zuelako. Nazioarteko merkataritzaren ziurgabetasunak eta ingurunekeo herrialdeen jarduerak izan duen galgak EAEko industriaren emaitzak baldintzatu dituzten azken hilekoetan. Hala ere, azken aldiko informazioak seinalatzen du zalantzak argitzen ari direla eta ekoizpena berriro suspertzen ari dela. Beste aldetik, bai eraikuntzak bai zerbitzuek aurreko hiruhilekoarenak baino gehikuntza tasa txikixeagoak jaso zituzten, nahiz eta oraindik oso esanguratsuak diren. Zehazkiago, eraikuntza %5,1 bikaina hazi zen eta zerbitzuak %2,7 areagotu ziren, ekonomiaren batez bestekoa baino ia puntu erdi bat gehiago.

Lan merkatua ondo erantzuten ari da EAEko ekonomiaren moteltzearen aurrean, baina lanpostuak sortzeko ahalmena ere leuntzen ari da. Zehazkiago adierazita, enpleguaren urte arteko tasa %2,0tik behera jaitsi zen lehen aldiz azken lau urteko epean, %1,8an kokatu arte. Tasa horrek adierazten du lanaldi osoko ia 17.000 lanpostu sortu direla denbora horretan. Haietatik, 12.300 zerbitzuetan sortu ziren, 2.200 industrian eta beste horrenbeste eraikuntzan, eta gainontzeko 200 enplegu lehen arloan. Enplegu sorrera horri esker, langabezia tasa %10,2ra murriztu zen.

EAEko ekonomiaren bizitasuna, beste ekonomia garatu batzuetan gertatzen ari den bezala, oraindik ez da prezioetara igaro eta BPGaren deflatoarea %1,1 apal batean kokatu zen, 2018an batez beste jaso zen baliotik (%1,0) hurbil. Deflatoarearen datua azpiko inflazioak maiatzean, ezagutu den azken datua baita, izan zuen emaitzatik (%0,9) hurbil dago. Beraz, une jakin batzuetan kontsumo prezioek izan zituzten igoerak osagai hegakorrenen portaeraren ondorioa bakarrik izan zen, batez ere energiaren prezioena. Hain zuzen ere, maiatzeko KPIa %1,0 izan zen eta hondar inflazioa %1,5era jaitsi zen, aurreko bi hilekoetan %4,0tik gorako igoerak jaso eta gero.


Lehen hiruhilekoaren hazkunde tasa aurreikusitakoa baino bi hamarren altuagoa izateak BPGaren urte osorako zenbatespena berrikusteko beharra ekarri du. Aurreikuspen hori orain %2,3an kokatu da berriro, martxoan beherantz egin zen zuzenketa bertan behera utziz. Beraz, urte osoan egonkortasuna izango da nagusi, lehen hiruhilekoaren antzeko balioak jasoz. Harez geroztik, BPGa %2,0 haziko da 2020an. Bi urteetan, barne eskariaren sendotasuna izango da hazkundearen oinarria eta kanpo saldoak hamarren gutxi batzuk kenduko ditu urte bakoitzean. Hala azken kontsumoak nola kapital eraketa gordinak zertxobait leunduko dute erritmoa. Sektoreen ikuspegitik, industriak oraingo une zaila gaindituko du eta gehikuntza tasa neurritsuak eskuratu ditu. Halaber, eraikuntzak eta zerbitzuek aldakuntza tasa positiboak lortuko dituzte, baina gero eta txikiagoak. Aurreikuspen honen arabera, enplegua %1,7 haziko da aurreko urtearen eta %1,3, berriz, datorren urtean, ekonomiari, hurrenez hurren, 16.000 eta 12.500 enplegu garbi gehituz. Langabezia tasa %9,9ra jaitsiko da 2019an eta %9,7ra, berriz, 2020an.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Ziurgabetasuna eta ezegonkortasuna izan ziren 2019ko lehen hiruhilekoaren ezaugarri nagusiak. AEBetako Gobernu Federalak aurreikusitakoa baino itxiera luzeagoa pairatu zuen eta herrialde horren eta Txinaren arteko merkataritza tentsioek bere horretan jarraitu zuten. Egoera horrek berriro jarri zuen zalantzan ekonomia txinatarraren sendotasuna. Europar Batasunean, ziurgabetasuna faktore geopolitikoei lotuta zegoen, Europako hauteskundeetatik eta Brexitaren akordio faltatik eratorriak. Adierazle guztiek seinalatzen zuten munduko ekonomiak berriro indarra galduko zuela, baina, uste zenaren kontra, ekonomia nagusien erritmoak egonkortzea lortu zuen.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Asian, bertako ekonomia nagusiek sendotasuna erakutsi zuten. Txinak %6,4ko urte arteko hazkundea jaso zuen 2019ko lehen hiruhilekoan. Hori horrela izanda, 2018ko azken hiruhilekoaren gehikuntza erritmoari eutsi zion eta zertxobait gaintitu ziren analisigile gehienen aurreikuspenak, munduko bigarren ekonomia nagusia %6,3 haziko zela uste zutelako. Hazkunde erritmoaren egonkortze hori industria ekoizpenaren suspertzeak eta azpiegiturretan eginiko gastu handiagoak ekarri zuten, bertako gobernuak zerga, moneta eta finantza alorretan onartu zituen neurri pizgarrien ondorioz, zerbitzuen bizitasun apalagoa konpentsatuz. Indiak, berriz, %6,0 areagotu zuen bere BPGa. Erritmo hori nabarmentzeko modukoa da, nahiz eta aurreko emaitza baino txikiagoa den. Dinamismo motelago hori BPGaren agregatu ia guztietara hedatu zen, zeren eta kontsumo publikoak bakarrik eskuratu baitzuen aurrekoa baino tasa handiago bat.

Azaleratzen ari diren gainontzeko ekonomietan, oro har, lehen hiruhilekoaren bilakaera 2018ko amaierakoa baino motelagoa izan zen. Brasilen, inbertsioaren eta esportazioen apaltzeak BPGaren hazkundea gutxitu zuten, kontsumo pribatuak bere horretan jarraitu zuen arren eta kontsumo publikoa gehiago hazi zen arren, hazkunde positiboak berreskuratuz. Txinako eskaria hoztu izanak esportatutako kopuruaren jaitsiera ekarri zuen eta, neurri handi batean, moteltze hori azaltzen du. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia brasildarra %0,4 hazi zen, azken bi urteko bigarren baliorik txikiena dena. Horrek agerian uzten du herrialdea geldirik dagoela eta ez dela gai izan irrikaz espero den suspertzeari ekiteko. Mexikok, berriz, moteltze garrantzitsua ezagutu zuen. Nahiz eta zerbitzuak %1,0 hazi ziren, gainontzeko jardueren jaitsierak, BPGaren %32,4 biltzen baitute, barne produktu gordina %0,1era eraman zuten, 2009ko laugarren hiruhilekotik izan duen tasarik txikiena baita. Zehazkiago adierazita, meatzaritza %7,6 jaitsi zen, eraikuntza %2,7 eta manufaktura industria, azkenik, %0,1. Kolonbiak eta Txilek ere bizitasuna galdu zuten aurtengo lehen hilekoetan. Lehenak %2,3ko hazkunde tasa eskuratu zuen, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago. Bigarrenak %1,9 areagotu zuen BPGa, aurreko epealdiko %3,3 hartatik urrun.

Herrialde garatuei dagokienez, oro har, %1,9 hazi ziren, aurreko emaitza baino hamarren bat gehiago, eta munduko hazkundea gorarazten lagundu zuten. Beste hiruhileko batez, AEBek erakutsitako sendotasuna nabarmendu zen. Herrialde hartan, iparraldeko eremua astindu zuen muturreko hotza eta historiako itxierarik luzeenak (35 egun) ez zuten lortu BPGaren gehikuntza gutxitzea, %3,2ra bizkortu baitzen. Bizitasun hori kontsumo pribatuaren bultzadan, ekonomia jardueraren bi herenak biltzen baititu eta %2,8 hazi baitzen, eta inbertsio pribatuaren sendotasunean oinarritu zen, azken hori gehikuntza erritmoa galgatu zuen arren. Aurrekoari lan merkatuaren egoera bikaina erantsi behar zaio, langabezia tasa apirilean bi hamarren jaitsi zelako, %3,6an kokatu arte, 1969ko abendutik izan duen mailarik apalena baita. Aurreko guztiak iradokitzen du herrialde hartako BPGak oraindik oinarri sendoak dauzkala.

Japoniak ezustea eman zuen bilakaera hedakor batekin. 2018ko bigarren seihilekoan hazkunde hutsalak jaso eta gero, 2019ko lehen hiruhilekoan ekonomia japoniarra %0,8 hazi zen urte arteko tasan. Hala eta guztiz ere, gorakada horren atzean dauden alderdiak ez dira lasaigarriak. Kontsumo pribatuak, BPGaren ia %60 biltzen baitu agregatu horrek, maila apaletan jarraitu zuen (%0,5) eta laster gauzatu behar zen BEZaren igoeraren aurrean bizi zen erosketen aurreratzeak ez zuen kontsumoa bultzatu. Inbertsioak eutsi egin zuen, azpiegiturretan eginiko gastu publikoari esker. Enpresen inbertsioak ez zuen bide horretan lagundu. Beste aldetik, kanpo merkataritzak hazkundeari egin zion ekarpen positiboa inportazioen jaitsieraren ondorioa izan zen, eta ez esportazioen bultzadari esker, azken hauek ere behera egin zutelako. Japoniako ekonomiaren sendotasuna zalantzan dago berriro, prezioak oraindik eremu positiboak egon arren –apirilean %0,9ra igo ziren- eta langabezia tasa (%2,4) berriro munduko tasa txikien artean kokatu.

Europako Batasunean, bost hiruhilekoz moteltzen aritu ondoren, ekonomia jarduerak bere erritmoa finkatu zuen. Hain zuzen ere, BPGa %1,5 handitu zen, aurreko hiruhilekoaren emaitza berdinduz. BPGaren osagaiak aztertuta, ondorioztatu daiteke kontinente zaharrak hazkunde osasuntsua lortu duela. Kontsumo pribatua erritmo egonkorrean hazten ari da, baita agregatu horrek BPGari egiten dion ekarpena ere (0,8 puntu). Orobat, kontsumo publikoak eta inbertsioak 2018ko erdialdean hasi zuten goranzko joerari jarraipena eman diote. Aurreko guztiaren ondorioz, barne eskariak 2,1 puntu ekarri zizkion ekonomia jarduerari. Halaber, esportazioek gorakada garrantzitsua izan zuten 2018ko amaieran lortutako emaitzen aldean eta BPGari eginiko ekarpena 1,5 puntuetara igo zen. Halere, inportazioek are hazkunde handiagoa izan zuten eta horren ondorioz kanpo arloak puntu erdi bat kendu zion jarduerari. Dagoeneko, hiru hiruhilekotan kendu ditu hamarrenak kanpo eskariak BPGari.

Zehazkiago aztertuta, Alemaniako ekonomiak barrutik hartu zituen bultzada nagusiak. Kontsumo pribatuak, sei hilekoz %0,5aren inguruko hazkundeak jaso eta gero, gorakada nabarmena (%1,6) eskuratu zuen. Kontsumo publikoak, berriz, antzeko mailari eutsi zion egonkor. Inbertsioa, hala eraikuntzan eginikoa nola ekipamenduan gastatutakoa, hazkundearen beste oinarria izan zen, %3,0ko gehikuntzekin. Kanpo bilakaerari dagokionez, bai esportazioek bai inportazioek aurreko hiruhilekoaren emaitza hobetu zuten, baina esportazioen tasa txikiagoaren ondorioz, kanpo eskariak zerbait kendu zion hazkundeari berriro. Frantzia, gobernuak jaka horien eskaera batzuei emandako erantzunak krisia leundu zuen eta mesedea egin zien kontsumo pribatuari eta inbertsioari. Horri erantsi behar zaio kanpo eskariak ez ziola ezer kendu BPGari, ekonomiaren hazkundera %1,2an egonkortu zela ulertzeko.

Erresuma Batuak, berriz, ez zuen pairatu oraingoz Brexitetik eratortzen den ziurgabetasuna. Izan ere, beraren hurbiltasunak erosketen aurreratzea ekarri zuen eta kontsumo pribatua (%2,2) eta inbertsioa areagotu zituen, azken hori hazkunde positiboak berreskuratu baitzituen,

2018ko amaieran izan zuen beherakada garrantzitsuaren ondoren. Are gehiago, bi agregatu horien artean, ekonomia britainiarrak aurtengo lehen hiruhilekoan eskuratu zituen 1,8 puntuetatik 1,5 puntu ekarri zuten. Bilakaera hedakor horretatik guztiz aldentuta ibili zen Italia. Izan ere, lehen zenbatespenean ematen zuen atzean utziak zituela hazkunde hutsalak, baina BPGaren berrikusketak egoera okerragoa islatu zuen. Kontsumo pribatuak eta publikoak %0,1eko tasa baino ez zuten lortu. Kapital finkoaren eraketa gordinak gehikuntza esanguratsua (%2,6) lortu zuen, baina izakinen aldakuntzak konpentsatu zuen. Beste aldetik, esportazioen bultzada ezerezean utzi zuen inportazioen igoerak. Aurrekoaren ondorioz, Italiako ekonomia %0,1 murriztu zen, 2014ko amaieratik izan duen lehen jaitsiera baita.

2018ko bigarren zatian moteltzea izan zen nagusi, baina 2019ko lehen hilekoetan ekonomia espainiarrak indarra hartu zuen eta %2,4 hazi zen, aurreko emaitza baino hamarren bat gehiago eta Europar Batasuna baino bederatziz hamarren gehiago. Barne eskariak eutsi zion hazkundearen motor nagusia izateari, bereziki kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren ekarpenei esker. Kanpo eskariak ere, lehenengo aldiz urtebete eta erdi batean, ekarpena egin zion hazkundeari, nahiz eta ekarpen hori inportazioen murrizketa handiagoaren ondorioa izan zen esportazioen hobekuntzaren ondorioa izan beharrean. Azkenik, lan merkatuak ere bizitasuna erakutsi zuen eta enplegua %2,8 hazi zen, lanaldi osoko 510.000 lanpostu baliokide sortuz.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2017	2018	2017		2018			2019	
			IV	I	II	III	IV	I	
Azken kontsumoko gastua	2,4	2,3	2,7	2,8	2,2	2,0	2,0	1,5	
- Familien gastua	2,5	2,3	2,7	3,0	2,3	2,0	2,0	1,4	
- Administrazioaren gastua	1,9	2,1	2,6	2,2	2,0	2,2	2,2	2,0	
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,8	5,3	5,2	3,9	7,5	5,3	4,4	4,7	
Nazio eskaria (*)	2,9	2,9	3,3	3,1	3,3	2,7	2,5	2,2	
Esportazioak	5,2	2,3	4,2	3,8	2,6	1,7	1,0	-0,5	
Inportazioak	5,6	3,5	5,4	4,8	5,1	2,3	1,7	-1,2	
BPG (m.p.)	3,0	2,6	3,1	2,9	2,6	2,5	2,3	2,4	
Nekazaritza eta arrantza	-0,9	2,6	0,4	2,8	4,8	-0,5	3,6	-0,1	
Industria	4,4	1,1	4,9	2,6	2,0	1,1	-1,3	0,4	
Eraikuntza	6,2	7,6	6,8	7,5	7,5	8,1	7,2	6,9	
Zerbitzuak	2,5	2,7	2,5	2,6	2,5	2,7	3,0	3,0	
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,3	1,4	2,7	3,0	1,0	0,9	0,9	-0,3	

Oinarri urtea: 2010. (*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2019ko hastapenean, EAEko ekonomia %2,3 hazi zen urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago. Beraz, 2018ko hasieratik bizi duen moteltzeko joerak aurrera jarraitzen du, baina prozesu hori leundu da. Halaber, Eustatek zenbatetsi duen datuak bi hamarrenetan gaintitu du Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak lehen hiruhilekorako aurreikusi zuen emaitza. Beraz, 2019 osorako hazkunde ekonomikoa %2,0tik zertxobait gorago kokatuko delako ideia sendotuta atera da. Ingurunekeo herrialdeekin alderatuta, agerian geratzen da EAEko ekonomiak bilakaera hobea izan duela Europar Batasunak (%1,5) eta Euroguneak (%1,2) baino. Orobat, Alemaniak (%0,7), Frantziak (%1,2) eta, bereziki, Italiak (%-0,1) eskuratu zituzten gehikuntzak baino puntu luze bat gehiago hazi da. Azkenik, ez da diferentzia esanguratsurik hautematen ekonomia espainiarrak epealdi horretan izan duen tasarekiko (%2,4).

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	2,9	2,8	3,1	2,9	2,6	2,4	2,3
Nekazaritza eta arrantza	6,8	2,3	-3,0	0,8	-4,6	17,1	8,4
Industria eta energia	3,1	2,1	3,7	3,1	1,9	-0,2	0,4
- Manufakturen industria	3,2	2,2	3,9	3,1	2,0	-0,1	0,3
Eraikuntza	3,8	4,3	2,7	4,1	4,8	5,6	5,1
Zerbitzuak	2,7	2,9	3,1	2,8	2,7	2,9	2,7
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,0	2,8	3,1	2,7	2,5	3,0	2,9
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,2	2,4	2,9	2,3	2,1	2,2	2,1
- Gainontzeko zerbitzuak	2,2	3,1	3,1	3,0	3,2	3,1	2,7
Balio erantsi gordina	2,9	2,8	3,1	2,9	2,6	2,4	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,7	3,1	2,8	2,6	2,5	2,3

Iturria: Eustat.

Lehen hiruhilekoaren ezaugarri azpimarragarriena, eskaintzaren ikuspegitik, industriaren balio erantsia berriro igo izana da, 2018ko laugarren hiruhilekoan izan zuen jaitziera txikiaren

ondoren. Hain zuzen ere, industriak %0,4 hobetu zuen 2018ko lehen hiruhilekoaren datuaren aldean. Nazioarteko merkataritzaren geldialdiak, AEBen eta beste eremu ekonomikoen arteko muga zergen tentsioek eraginda, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko akordiorik ezak eta automobilgintza europar indartsua kaltetzen duten arazoek azaltzen dute industria jarduerak azken hilekoetan ezagutu duen moteltzea. Industriaren ahultasun hori, oro har, herrialde europarretan ere hautematen da eta, printzipioz, pentsatzekoa da gaintitzen hasia den egoera iragankorra dela, lehen hiruhilekoan jaso den datu positiboak iradokitzen duen bezala.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	I
Industria							
Industria produkzioaren indizea	5,7	2,0	5,5	3,4	1,9	-2,5	0,0
Negozio zifren indizea	9,4	5,9	7,0	11,3	7,4	-0,9	2,9
Eskarien sarrera	6,5	4,3	7,7	5,6	1,7	4,6	4,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	1,8	1,9	1,9	1,9	1,3	1,1
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koituntura indizea	5,9	12,5	6,7	13,7	13,9	15,3	---
Etxebizitza berriak eraikitzeako oniritziak	26,7	20,3	-5,9	88,5	16,7	3,6	30,0
Etxebizitzaren salerosketak	11,4	10,2	14,0	5,1	10,3	11,9	3,7
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	3,6	2,7	3,4	4,0	4,3	4,0
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	9,2	10,5	11,7	9,6	10,3	10,8	7,4
Hoteletan igarotako gaualdiak	2,6	7,2	9,3	5,7	5,9	9,4	3,7
Negozio zifren indizea	4,4	7,4	7,5	7,8	9,1	5,5	5,1
Zerbitzuen koituntura indizea	3,2	1,1	1,7	0,9	0,0	1,7	1,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,2	2,1	2,4	2,1	1,7	2,0	1,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriak 2019ko hastapenean izan zuen nolabaiteko hobekuntza are esanguratsuagoa da kontuan hartzen bada epealdi horretan EAEko bi enpresa handik egun batzuetako geldialdiak egin zituztela. Alde batetik, Gasteizko Mercedes Benz lantegiak ekoizpena egokitzen jarraitu zuen, isurien araudi berritik eratorri den eskari jaitsieraren ondorioz, balizko erosleen asmoak geroratu direlako. Beste aldetik, Petronorrek bi hilabeteko geldialdia egin zuen bere instalazioetako batzuetan hobekuntzako inbertsioak egiteko. Inbertsio horien diru kopurua 52

milioi euro da. Egoera hori berriro errepikatuko da maiatzaren eta uztailaren artean, epealdi horretan 49 milioi euroko beste inbertsio gehigarri bat egingo duelako.

Geldialdi horiek gertatu ziren arren, industriaren ekoizpena ez zen murriztu 2018ko hasierako datuaren aldean. Hain zuzen ere, IPIaren urte arteko aldakuntza tasa hutsala (%0,0) izan zen, ekipamendurako ondasunen bultzadari esker, ekoizpena %1,4 hobetu zutelako, 2018ko amaierako beherakada handiaren ondoren. Ondasun horiei gehitu zitzaizkien bitarteko ondasunak, jaitziera %-1,3ra leundu zutelako. Beste aldetik, kontsumoko ondasunek emaitza nabarmena (%2,7) eskuratu zuten, nahiz eta ondasun iraunkorrek beherakada sendoa (%-4,8) jaso zuten, iragankorrek konpentsatua (%4,7). Azkenik, energiaren ekoizpena ia ez zen aldatu (%-0,1), aipatu den Petronorren geldialdiak baldintzatuta.

Sektorearen beste adierazle batzuek iradokitzen dute lehen hiruhilekoaren susperraldiak datozen epealdietan ere jarraituko duela, laugarren hiruhilekoaren jaitziera gertakari iragankor gisa utziz, zikloaren aldaketa ekarriko ez duena. Esate baterako, eskari berriak %4,6 handitu ziren lehen hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan beste eta 2018ko batez bestean baino zertxobait gehiago. Orobat, industriaren negozio zifrak balio positiboak berreskuratu zituen, txikiak izan arren, eta industria giroaren indizeak ikuspegi baikorragoa erakusten du apirilean eta maiatzean, aurreko zortzi hilekoetako beherakaden ondoren. Datu horiek sektorearen jarduerak jarraipena izango duela seinatzen dute.

Beste hiruhileko batez, eraikuntzak eskuratu zuen urte arteko gehikuntza tasarik altuena (%5,1) eta aurreko datuaren aldean erritmoa puntu erdi batean leundu zuen arren, gehikuntza tasa oraindik 2018ko batez bestekoaren oso gainetik dago. Sektorearen jardueren banaketak adierazten du eraikinak direla, alde handiz, eraikuntzaren bultzagile nagusia, eraikuntzaren koiuntura indizean %7,3ko gehikuntza eskuratuta. Aitzitik, obra zibilaren zifrak (%0,7) nabarmen apalagoak dira.

Zerbitzuek %2,7 hobetu zuten beren balio erantsia, aurreko hiruhilekoetan bezalatsu. Ez da aldakuntza azpimarragarririk hautematen merkataritza, ostalaritza eta garraioa (%2,9) biltzen dituen taldean, ezta administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuek (%2,1) barnean hartzen dituen blokean ere. Gainontzeko zerbitzuetan (%2,7), besteak beste, finantza eta lanbide jarduerak barruan baititu, hazkunde tasa esanguratsua izan zen, baina 2018ko batez bestean lortutakoa (%3,1) baino zertxobait txikiagoa.


Zerbitzuen sendotasuna Eustatek osatzen duen koiuntura indizean hautematen da, 2019ko lehen hiruhilekoari %1,6ko balioa eman diolako, 2018an, batez beste, %1,1eko emaitza eskaini

zior bitartean. Bizitasun handi horren erantzulea merkataritza da (%3,1), nahiz eta automobilen salmenta (%-1,8) isurien araudi berritik eratorritako ziurgabetasunak kaltetu duen. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak abiarazi duen Renove planak pentsarazten du salmentak hobetuko direla bigarren hiruhilekoan. Hala handizkako salmentek (%4,8) nola txikizkakoek (%2,0) emaitza onak eskuratu zituzten. Gainontzeko zerbitzuetatik, azpimarratu behar dira garraioaren bultzada sendoa (%3,4) eta, aitzitik, informazioa eta komunikazioek (%-3,3) zein jarduera administratiboek eta zerbitzu laguntzaileek (%-3,9) bizi dituzten zailtasunak. Azkenik, ostalaritza geldituta dago urte arteko tasan (%-0,2).


Ekonomiaren moteltzea lan merkatura ere igarotzen ari da. Hain zuzen ere, enpleguaren hazkunde tasa %2,0aren azpian kokatu zen lehen aldiz lau urteko epean. Zehazkiago adierazita, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %1,8 areagotu zen lehen hiruhilekoan, hots, aurreko bi epealdietan baino bi hamarren gutxiago. Hala eta guztiz ere, tasa horrek esan nahi du ia 17.000 enplegu garbi sortu direla azken urtebeteko epean. Horiei esker, EAEko ekonomian badaude 967.900 lanpostu guztira. Langile kopuru hori 2009ko hasieratik inoiz jaso den daturik altuena da.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Sortutako enplegu berri guztiaren zati handiena zerbitzuetan gauzatu zen, %1,8ko tasa batekin eta 12.350 langile gehiagorekin. Gainontzekoak bi zati berdinetan banatzen da industriaren eta

eraikuntzaren artean, bi sektoreetan 2.200na lanpostu garbi sortu zirelako, baina urte arteko tasa ezberdina izan zen jarduera bakoitzean (%1,1 industrian eta %3,7 eraikuntzan). Aurreko guztiari gehitu behar zaizkio lehen arloan sortutako 200 lanpostuak (%1,6).

Dagoeneko ezagutzen diren apirileko eta maiatzeko datuek pentsarazten dute enpleguaren gehikuntza erritmoak bere horretan jarraitu duela. Zehatz-mehatz adierazita, Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,8 hazi zen lehen hiruhilekoan eta ia ez da tasa horretatik mugitu ondorengo bi hilekoetan. Jardueraren araberrako banaketak bizitasun handia erakusten du gizarte edukia duten jardueretan, hala nola osasun arloan (%5,1 maiatzean) eta hezkuntzan (%3,9), baina baita aisialdiarekin zerikusia dutenetan ere, esate baterako jarduera artistikoetan (%4,3) eta ostalaritzan (%2,6). Oro har, afiliazioak irudi baikorra ematen duen arren, pisua daukaten adar batzuk geldirik daude. Adibidez, ibilgailuen salmenta eta konponketa (%-0,2) eta jarduera administratiboak eta zerbitzu laguntzaileak (%-0,1).

Afiliazioaren gehikuntzak atzerriko naziotasuna duen biztanleriari ere mesede egiten dio. Izan ere, Gizarte Segurantzaren izena emanda dauden atzerritarren kopurua %9,0 baino gehiago hazten ari da. Kolektibo hori oso fokatuta dago etxeko zereginetan, eraikuntzan, merkataritzan eta ostalaritzan, baina urratsak ematen ari dira industrian ere parte hartzeko, prestakuntza maila altuagoa eskatzen duen sektorea baita. Atzerritako afiliatuen artean, kopuru handienak Errumania du jatorria, ondoren Maroko eta Portugal daudela.

Enpleguaren hazkundearen ondorioz, langabezia gutxitzen ari da EAEn. Izan ere, langabezia tasa 2018ko lehen hiruhilekoko %11,3tik 2019ko hastapeneko %10,2ra igaro da. Lanik gabe dauden lagunen kopurua %9,4 murriztu zen urte arteko tasan, guztira 106.200 pertsonatan geratu arte. Haietatik, 49.200 gizonak ziren eta 57.000 emakume. Langabeziaren jaitziera bizi hori biztanleria aktiboa %0,5 hazi zen une batean lortu zen.

Barne eta kanpo eskaria

EAEko BPGak lehen hiruhilekoan moteltze arina erakutsi zuen arren, barne eskaria aurreko hiruhilekoetako joera sendoari eusteko gai izan zen eta %2,6 handitu zen, aurreko datua berdinduz. Aitzitik, kanpo saldoak lau hamarren kendu zizkion ekoizpenaren gehikuntzari, hots, laugarren hiruhilekoan kendu zuena gehi hamarren bat gehiago. Kanpo merkataritzaren emaitza txarra nagusiki esportazio errearen beherakada garrantzitsuaren ondorioa da (%-1,4), inportazioek pairatu zutena (%-0,9) baino puntu erdi bat handiagoa izan zelako. Okerragotze horren arrazoiak, beste batzuen artean, honako hauek dira: AEBek beste ekonomia eremu

batzuei, baina bereziki Txinari, egin dizkion muga zergak igotzeko mehatxuek sortu duten ziurgabetasuna, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko bidea adostu ez izana eta Europako automobilgintzak bizi dituen zailtasunak, isurien araudi berrietik eratortzen direnak eta batez ere diesel motorrei eragiten diena.

Barne eskariaren sendotasuna beraren bi osagai nagusietan oinarritzen da, aurreko datuaren aldean ia ez baitzuten urte arteko tasa ezer aldatu. Izan ere, azken kontsumoan eginiko gastua %2,1 hobetu zen, 2018ko laugarren hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago. Halere, begi bistakoa da agregatu hori erritmoa apaltzen ari dela, 2018ko lehen hiruhilekoko %2,8 hartatik aipatu berri den datura arte. Beste aldetik, kapital eraketa gordinak bilakaera sendoa eta egonkorra erakusten du, azken kontsumoaren tasa ia bikoizten duena.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	2,9	2,8	3,1	2,9	2,6	2,4	2,3
Gastua azken kontsumoan	2,9	2,4	2,8	2,5	2,0	2,2	2,1
- Familien gastua kontsumoan	3,0	2,6	2,9	2,6	2,3	2,6	2,2
- Adminis. gastua kontsumoan	2,4	1,7	2,6	2,0	1,2	0,8	2,0
Kapital eraketa gordina	3,3	4,1	3,7	4,8	4,0	4,1	4,1
- Ekipamendu ondasunak	3,2	4,0	4,8	6,1	2,9	2,1	3,3
- Gainontzeko inbertsioa	3,4	4,2	3,0	4,0	4,6	5,2	4,7
Barne eskaria	3,0	2,8	3,0	3,0	2,5	2,6	2,6
Esportazioak	4,7	3,0	6,7	2,9	2,2	0,3	-1,4
Inportazioak	4,8	3,0	6,4	3,1	2,1	0,6	-0,9

Iturria: Eustat.

Moteltzeko joera bereziki esanguratsua da familien kontsumoan, %2,2 hazi baitzen, aurreko datua eta 2018ko batez bestekoa baino lau hamarren gutxiago. Kriaren garaian geroratu ziren erosketak honezkero eginak dira, beraz kontsumoaren bilakaera gero eta gehiago egokitzen da errenta erabilgarriaren aldakuntzara, eta errenta hori batez ere enplegu garbiaren sorrerak eta soldata errealek zehazten dute. Kontuan hartuta enplegua %1,8aren inguruan hazten ari dela eta soldata errealek hamarren batzuk igotzen direla, pentsatzekoa da kontsumo pribatuak %2,0aren inguruan jarraituko duela denboraldi batez. Beste aldetik, administrazio publikoen

kontsumoa %2,0 hazi zen, aurreko emaitzak hobetuz, nahiz eta aldagai horretan gorabeherak oso ohikoak izaten diren.

Kapital eraketa gordinak (%4,1) sendotasun nabarmena erakusten du bi osagaietan. Zehazkiago adierazita, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa %3,3 hazi zen, 2018an zehar bizi zuen moteltzea galgatzuz. Beste aldetik, gainontzeko inbertsioa, eraikuntzan eginikoa barnean hartzen baitu, %4,7 handitu zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi bat gutxiago, baina 2018ko batez bestekoa baino puntu erdi bat gehiago. Ingurunean bizi den ziurgabetasunak eragina izan dezake etorkizuneko inbertsioan, bereziki zalantzak azkar uxatzen ez badira. Halere, finantzaziorako erraztasunek mesedea egingo diote aldagai horri.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	I
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	2,3	1,9	3,0	1,8	-0,6	3,3	1,5
Txikizkako merkataritza indizea	-0,3	1,3	2,1	1,5	-0,8	2,5	0,9
Kontsumo ondasunen ekoizpena	5,6	5,7	3,7	4,7	10,1	4,7	2,7
Kontsumo ondasunen inportazioa	4,2	-3,5	-1,7	-4,7	-7,1	-0,4	-1,5
Turismoen matrikulazioa	7,3	4,6	12,8	8,6	10,8	-11,3	-4,4
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	3,3	3,3	8,5	7,0	4,0	-5,4	1,4
Ekipo ondasunen inportazioa	5,5	6,5	6,3	10,6	4,4	4,7	9,1
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	7,8	18,0	7,8	38,3	25,9	3,6	-2,8
Etxebizitza berriak eraikitze oniritziak	26,7	20,3	-5,9	88,5	16,7	3,6	30,0
Lizitazio ofiziala	75,1	-26,8	75,3	0,9	-39,6	-62,9	31,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Sustapen Ministerio, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eskura dagoen koiunturako informazioak baieztatzen du inbertsioak, epe laburrean, erritmo altuetan jarraituko duela. Izan ere, ekipamendurako ondasunen inportazioa %9,1 handitu zen lehen hiruhilekoan, 2017ko eta 2018ko batez bestekoen oso gainetik, makinak eta tresnak biltzen dituen atalaren bultzadari esker, nahiz eta garraio materiala galgatu egin zen. Orobat, ekipamendurako ondasunen ekoizpenak atzean utzi zuen aurreko hiruhilekoaren jaitsiera eta balio positiboak berreskuratu zituen urte hasieran (%1,4). Eraikuntzan eginiko inbertsioari dagokionez, etxeak eraikitze oniritzien eta lizitazio ofizialaren gehikuntza sendoak

pentsarazten du datozen epealdietan ere tasa esanguratsuetan ibiliko dela. Inbertsioaren portaera onaren salbuespena zama ibilgailuen matrikulazioa da, urte arteko tasan jaitsi zelako. Hala ere, kontuan hartu behar da aldagai horrek gorabehera handiekin erantzuten diela diru laguntza publikoen egitasmoei.

Barne eskariaren bizitasunak kontraste egiten du atzerriarekiko merkataritza harremanen jaitsierarekin, batez ere esportazioekin. Zehatz-mehatz, ondasun eta zerbitzuen esportazioak %1,4 gutxitu ziren termino errealetan, inportazioak %0,9 murriztu ziren bitartean. Tasa horiek utzi zuten saldoak lau hamarren kendu zizkion EAEko BPGari, hau da, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Beraz, kanpo saldoa urrundu da 2017an eta 2018an, urteko batez bestean, erakutsi zuen neutraltasunetik. Kanpo saldoaren ekarpen negatibo hori eta Europar Batasunean (bost hamarren) zein Eurogunean (bi hamarren) jasotakoak antzekoak dira, baina eremu ekonomiko horietan esportazioak eta inportazioak hazi ziren.

Esportazioen jaitsiera Eustatek, aduanen datuekin, atzerrian saldutako ondasunez argiratzen duen estatistikan hautematen da. Kasu horretan, 2018ko laugarren hiruhilekoan nabaritu zen moteltzeak bide eman dio %3,8ko jaitsiera nominal bati 2019ko hastapenean, urte arteko tasan neurtuta. Guztira, hiruhilekoaren salmentak 6.178 milioi euroetara iritsi ziren. Diru kopuru hori, jaitsi den arren, serie historikoaren kantitate altuenetako bat da. Aurreko buletin batzuetan azaldu zenetik urrun, aurtengo lehen hiruhilekoaren emaitza ez du baldintzatu esportazioen prezioen jaitsiera batek, salmentaren balioa aldatu dezakeena, zeren eta saldutako tonen analisiak ere urte arteko jaitsiera (%-6,8) adierazten baitu.

Esportazioen beherakadaren zati esanguratsu bat erregai mineralen portaerak justifikatzen du. Lehenago ere adierazi denez, Petronor enpresak bi hilabeteko geldialdia egin zuen bere instalazioen zati batean, enpresa horretako jarduera kaltetuz. Horrek azaltzen du produktu mineralen esportazioaren balioak %31,2ko jaitsiera izatea, eurotan neurtuta, eta %20,4koa, berriz, esportatutako tonatan kalkulatzenean. Bi tasa horien arteko aldeak ez du loturarik petrolio upelaren balizko garestitze batekin, zeren eta bai 2018ko lehen hiruhilekoan bai 2019ko lehen hiruhilekoan 65 dolarren inguruan ordaindu baitzen. Arrazoia euroak dolarraren aldean izan zuen balio galera da, 2018ko hasieran 1,23 dolar balio zuen bitartean, aurtengo lehen hilekoetan 1,14 dolarretara jaitsi zen, azken egunetan 1,12 dolarretara iritsiz.

Energiako produktuak alde batera utzita, gainontzeko ondasunek ere ez zuten bilakaera positiboa erakutsi lehen hiruhilekoan. Zehatz-mehatz, energiak bestelako ondasunen esportazioek %1,1 gutxitu zuten beren balioa. Jaitsiera horren zati bat Mercedes Benz enpresak ekoizpena gelditu izanaren ondorioa da, isurien araudi berritik eratorritako eskari apalagoak kaltetuta. Hain zuzen ere, garraio materialaren esportazioak %17,2 gutxitu ziren, aurreko

hiruhilekoan jaso zen %20,5eko beherakadari jarraipena emanez. Bi datu horiek automobilgintzaren une txarra islatzen dute. Metal arruntek ere galera garrantzitsua izan zuten lehen hiruhilekoan (%-5,9).

Emaitza positiboa makinak eta tresnak atalak jarri du, beren salmentak %9,7 handitu zituelako. Beraz, zazpi hiruhileko kateatu dituzte gorakada sendoak jasoz. Gainontzeko produktu taldeek, EAEko esportazioen egituran pisu txikiagoa baitute, portaera ona izan zuten, batez ere produktu kimikoek, salmentak %23,2 hobetu zituztelako.

EAEko esportazioen banaketa geografikoak seinalatzen du salmentak murriztu zirela bai herrialde garatuetan (%-3,2) bai azaleratzen ari direnetan (%-6,5), azken horietan bereziki. Bi eremu horietan, oso pisu esanguratsua du ibilgailu automobilen salmentak, jaso zen beherakada azaltzen duena. Orobat, erregai mineralek herrialde garatuetara esportatu denaren jaitsieran lagundu dute, galdaketa manufakturrek garapen bidean dauden herrialdeetan portaera bereziki negatiboa izan zuten bitartean.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	10,5	6,8	6,1	6,9	3,7	-3,8	6.177.603
ELGE	10,6	7,9	7,1	6,2	6,3	-3,2	5.151.750
Europar Batasuna	9,4	7,7	7,8	8,2	6,3	1,2	4.252.064
Frantzia	12,4	1,6	6,0	-4,1	-7,6	-6,5	963.869
Alemania	3,1	5,2	7,0	5,3	3,4	3,0	996.027
Erresuma Batua	16,6	14,5	1,8	20,8	20,6	14,6	504.498
Italia	2,1	13,8	21,7	15,7	6,2	-6,0	309.302
AEB	18,5	16,4	17,7	-0,8	9,3	-14,0	461.201
ELGETik kanpokoak	9,9	2,2	1,8	10,0	-7,7	-6,5	1.025.853

Iturria: Eustat.

Herrialde garatuen artean, oso bestelakoa izan da Europar Batasunera esportatutakoaren igoera (%1,2) eta AEBetan jaso zen beherakada handia (%-14,0). Azken herrialde horretan, merkataritza harremanen zati handi bat erregai mineraletan oinarritzen da, esportatutako guztiaren laurdena baino gehiago baitira eta %48,1eko jaitsiera izan baitzuten. Aitzitik, makineriaren salmentak oso emaitza onak eskuratu zituen, bereziki makina eta tresna

elektrikoaren atalak (%162,0). Makineria mota guztiekin zerikusia duten arantzel kapituluen batuketa herrialde horretara EAetik esportatzen den guztiaren %28,0 da jadanik. Hirugarren bloke garrantzitsuena galdaketa manufakturak dira, salmenta guztien %10 baitira, baina berriro urte arteko jaitsiera (%-16,8) izan zuten.

Europar Batasunaren multzoak %1,2 areagotu zuen EAEko produktuen erosketa. Lehenago aipatu diren bi enpresen geldialdiek eragina izan zuten ibilgailu automobilen eta erregai mineralen esportazioen emaitzan, hurrenez hurren, beren salmenten balioa %8,4 eta %12,3 gutxitu baitziren. Hala eta guztiz ere, jaitsiera horiek makineriaren atalen bilakaera onak konpentsatu zuen, oro har, salmentak %10,0 baino gehiago handitu zituztelako. Halaber, kautxuak (%5,4) eta galdaketa manufakturrek (%4,6) ere lagundu zuten esportazioen guztizkoa itxuratzen. Dena dela, aipatutako kapituluen tasa positiboak aurreko hiruhilekoarenak baino txikiagoak izan ziren, motelaldia orokorra dela iradokiz.

2019ko lehen hiruhilekoan, Frantzia izan zen EAEko enpresen bezero nagusia, Alemaniaren aurretik, azken hau toki hori bete ohi duen herrialdea baita. Herrialde bakoitzera zuzentzen diren esportazioen egitura ezberdina izateak azaltzen du portaera ezberdin hori. Hain zuzen ere, Frantziara bidalitako produktuen balioa %3,0 handitu zen, aurreko bi urteetan lortutako emaitzetatik hurbil. Produktu horien artean, erregai mineralen salmentak izan zuen gorakada garrantzitsua (%56,6) azpimarratu behar da, 2018ko datu ezohikoa bereziki apala izan zelako. Orobat, makineriaren esportazioak emaitza ona lortu zuen, batez ere makina eta tresna mekanikoen atalak (%41,9). Ibilgailuen salmentak (%-24,4) herrialde horretan ere behera egin zuen, baina produktu horien pisua esportazioen egituran %16,0 da Frantzian eta ia %50,0, berriz, Alemanian.

EAEko esportazioak Alemaniara %6,5 murriztu ziren lehen hiruhilekoan eta hiru hiruhileko eman ditu jaitsierak pilatzen. Dagoeneko adierazi denez, ibilgailu automobilerik (%-5,3) azaltzen dute merkatu horretan bildu diren emaitza txarrak, pisua duten beste kapitulu batzuetan eskuratu ziren gehikuntzek konpentsatu ez dituztenak. Izan ere, makineria mekanikoaren salmenta %10,1 hazi zen eta kautxuarena, berriz, %0,4. Aitzitik, galdaketa eta beraren manufakturrek, guztizkoaren %15 biltzen baitute, jaitsiera txikiak izan zituzten.

Beste hiruhileko batez, Erresuma Batua nabarmendu zen EAEko produktuen helmuga merkatu gisa eta erosketak %14,6 areagotu zituen. Deigarria da egiaztatzea herrialde horretako salmenten egituran pisu gehien duten taldeek neurri batean bakarrik justifikatzen dutela aipatu den gehikuntza hori. Zehazkiago adierazita, ibilgailu automobilerik esportatutako guztiaren herena baino gehiago dira eta %3,4ko beherakada izan zuten. Beste aldetik, makineria mekanikoak (guztizkoaren %11,5 dira) %6,6 gutxitu zituen salmentak merkatu horretan.

Burdin eta altzairuzko galdaketek bakarrik hobetu zituzten salmentak (%15,8) epealdi horretan. Beraz, esportazioen hobekuntza pisu txikia ohi duten kapituluetan eskuratutako aparteko emaitzek ekarri zuten. Kapitulu horien artean, erregai mineralak daude, salmenta sei aldiz handitu baitzuten, eta baita trenbideko ibilgailuak ere.

Italian saldutakoak oso bilakaera ona erakutsi zuen 2018an zehar. Hala ere, 2019ko hastapenean, %6,0ko urte arteko jaitsiera jaso da, hedatzeko aldiari amaiera eman diona. Merkatu horretan, jatorria EAEn duten ibilgailuen salmenta %22,2 jaitsi zen eta burdin eta altzairuzko galdaketa produktuena, berriz, %14,7. Makina mekanikoen (%35,4) eta kautxuaren (%12,6) salmentak neurri batean leundu zuten jaitsiera.

Garapen bidean dauden herrialdeek berriro murriztu zituzten EAEko produktuen erosketak, oraingoan %6,5. Merkatu horretan, pisu garrantzitsua dauka ibilgailu automobilen salmentak eta makineriarenak. Lehen kasuan, esportatutakoaren balioa %28,5 jaitsi zen eta bigarreanean, ordea, %3,0 hobetu zen. Hala eta guztiz ere, trenbideko ibilgailuen salmentak guztizkoaren emaitza leuntzen lagundu zuen, aurreko urteko emaitza laukoiztu zuten aparteko bidalketa batzuei esker.

Txinan saldutakoak %27,4ko jaitsiera jaso zuen, aurreko beherakadei segida emanaz eta merkatu hori EAEko esportazio guztien %2,0 baino gutxiagoko hartzaile gisa utziz. Oso bereziki, herrialde horretara bidaltzen dira makinak eta tresnak, %22,7 murriztu baitziren, eta galdaketa manufakturak (%-45,3). Brasilen, EAEko esportazioak %39,3 gutxitu ziren, batez ere 2018an gauzatu zen erregai mineralen salmenta garrantzitsua ez zelako errepikatu. Azkenik, Errusiak zertxobait handitu zituen erosketak EAEn (%2,1), kautxuaren gehikuntza sendoari esker (%72,2).

Inportazioek esportazioek baino perfil hedakorragoa erakutsi zuten, baina moteltzeko joera batekin. Guztira, atzerrian erositakoaren balioa %5,1 hazi zen eta erregai mineralak (%-2,9) alde batera uzten badira, balioa %8,1era igotzen da. Banaketa produktuen arabera egiten denean, agerian geratzen da garraio materialaren inportazioa berriro murriztu dela (%-11,4), gainontzeko taldeen gehikuntzek konpentsatu zutena.

Inportazioen gehikuntza berriro garrantzitsuagoa izan zen azaleratzen ari diren herrialdeetan (%14,3) garatuetan (%1,2) baino, neurri handi batean erregai mineralen jatorria aldatu zelako. Izan ere, Errusiak erregaien hornitzaile nagusiaren papera berreskuratu zuen, Norvegiaren eta Erresuma Batuaren kaltetan. EAEk bi herrialde horietan erosi zituen erregaien balioa erdira jaitsi zen lehen hiruhilekoan.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	20,5	8,8	8,7	13,1	10,6	5,1	5.159.177
ELGE	17,8	4,4	4,6	4,9	6,7	1,2	3.496.976
Europar Batasuna	13,4	-0,8	2,7	3,4	-2,1	3,3	2.815.519
Frantzia	6,8	4,9	11,5	4,3	-0,5	6,3	798.403
Alemania	12,0	5,6	14,5	0,6	-3,2	-1,3	494.946
Erresuma Batua	62,8	-43,0	-42,2	2,6	-45,6	-28,4	189.451
Italia	7,7	6,9	9,0	10,4	-2,5	-2,0	243.479
AEB	18,8	13,5	-30,4	25,8	51,1	85,6	181.267
ELGETik kanpokoak	26,9	18,4	17,0	30,6	19,3	14,3	1.662.201

Iturria: Eustat.

AEBetatik ekarritako inportazioak %85,6ko gehikuntza aparta lortu zuen eta pisua irabazten ari da EAEko ekonomiaren hornitzaile gisa. Herrialde hartatik batez ere erregai mineralak (guztizkoaren %33,9) eta makina eta tresna mekanikoak (guztiaren %10,9) ekartzen dira, baina haziek (guztizkoaren %20,7) gero eta pisu gehiago irabazten ari dira, pasa den urtea arte kapitulu hori hutsala bazen ere. Aipatutako hiru atal horiek nabarmen handitu zituzten beren inportazioak. Europaren kasuan, garrantzitsua da Alemanian erositakoaren hazkundera. Herrialde horrek EAEko ekonomiari batez ere garraio materiala eta makineria saltzen dizkio. Lehenengoaren jaitsiera bigarrenaren gorakada sendoak konpentsatu zuen. Gainontzeko herrialde nagusiek urte arteko jaitsierak jaso zituzten EAEko merkatuan, bereziki Erresuma Batuak, erregai mineralen mendean dagoelako.

Lehen hiruhilekoaren esportazioen eta inportazioen arteko konbinaketatik eratortzen den merkataritza saldoa 1.018 milioi eurokoa izan zen. Alde batetik, energiako produktuen salerosketak 914 milioi euroko saldo negatiboa utzi zuen. Aitzitik, gainontzeko produktuetan 1.932 milioi euroko saldo positiboa lortu zen. Diru kopuru biak nahiko altuak dira serie historikoan. Herrialdeka, EAEk aldeko saldoa eskuratu zuen bere merkataritza harremanetan Frantziarekin (501 milioi euro), Erresuma Batuarekin (315 milioi) eta AEBekin (280 milioi). Aitzitik, merkataritza defizita izan zuen Errusiarekin (262 milioi), Txinarekin (228 milioi) eta Japoniarekin (27 milioi).

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioak aztertzen dituzten adierazleek baieztatzen dute ekonomiaren bilakaera onak oraindik ez duela presio inflazionistarik eragin. Alde batetik, BPGaren deflatoea %1,1 handitu zen, hots, 2018ko batez bestean jasotakoaren balio bertsua. Hala eta guztiz ere, kontsumo pribatuaren deflatoeak nabarmen apaldu zituen aurreko balioak, KPIarekin gertatu den bezala. Zehazkiago adierazita, indize hori %1,0an kokatu zen maiatzean, argitaratu den azken hilekoan. Portaera apal horretatik aldentzen den adierazle bakarra industria ondasunak dira, beren prezioak %2,6 igo zituztelako, energiaren garestitzearen ondorioz.

Kontsumo prezioen indizearen esparruan, azpimarratu behar da adierazle horrek hazkunde tasa apaldu zuela aurtengo lehen hilekoetan, 2018ko laugarren hiruhilekoaren %1,6tik aurtengo maiatzean, ezagutu den azken datua baita, %1,0an kokatu arte. Presio inflazionisten ahultze hori batez ere lotuta dago petrolio gordinak berriki izan duen merkatzeari.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2018		2019		Ekarpena
			IV	I	Maiatza		
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	1,6	1,3	1,0	1,0	
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	0,9	0,7	0,9	0,7	
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,5	0,5	0,1	0,0	
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	0,0	0,0	0,2	0,0	
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,6	1,3	1,6	0,7	
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	4,4	3,6	1,5	0,3	
- Landu gabeko elikagaiak (%7,6)	3,7	2,9	2,1	1,5	-0,2	0,0	
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	6,1	5,2	2,7	0,3	

Iturria: INE.

Hain zuzen ere, 2018ko amaieran petrolio upelaren balioa 56 dolarretan kokatu zen eta pasa den urtarrilean berriro hasi zen garestitzen, apirilean 74 dolarren gainetik kokatu arte. Hala eta guztiz ere, aurreratua izan zenez, joera irauli egin zen hegakortasun handiko giro batean. Hori horrela izanda, ekainaren hasieran petrolio gordinaren salneurriak 65 dolarren azpiko erregistroak markatu zituen.

Aurrekoetan ez bezala, arreta gunea eskaintzatik eskarira aldatu da. Horniketarako arriskuak oraindik oso altuak dira, Ekialde Ertaineko ziurgabetasun geopolitikoarengatik. Orobat, Venezuelak arazoak dauzka petrolioaren eratzeko eta Errusiako petrolio kutsatuak krisia eragin zuen. Hala eta guztiz ere, petrolioaren salneurriak berriki izan duen merkatzea eragin duen faktore nagusia eskaintzan kokatu behar da. Zehatz-mehatz adierazita, Txinaren eta AEBen arteko merkataritza tentsioak, Washingtonek Mexikori muga zergak igotzeko mehatxuak eta munduko ekonomiaren balizko moteltzeak zalantzan jarri dute petrolioaren etorkizuneko eskaria, prezioen jaitsiera behartuz.

Inflazioak Eurogunean eta EAEn antzeko portaera erakutsi zuen epealdi horretan. Izan ere, Eurogunean inflazioa %1,2an kokatu zen maiatzean, adierazle aurreratuak seinaltatu duenez. EAEn, berriz, behin-betiko datua %1,0ra iritsi zen, lehenago ere adierazi denez. Bi lurralde horien artean hauteman den diferentzial txikiaren jatorria energiaren osagaian dago, lurralde bakoitzean pisu eta zerga ezberdinak dituelako. Horren ondorioz, hala garestitzeak nola merkatzeak eragin handiagoa izaten du EAEn Eurogunean baino.

Ohiko pizgarrien aurrean, bereziki ekonomiaren bilakaera onaren aurrean, inflazioak gaur egun erantzunik ez emateak inflazioari buruzko igurikimenak apalarazi ditu eta beherantz zuzendu, bai inflazio orokorraren kasuan bai azpiko inflazioari dagokionez. Izan ere, inflazioari buruzko aurreikuspenak energiaren salneurriak izango dituen aldaketek baldintzatzen dituzte nagusiki eta ez horrenbeste soldaten gaur egungo igoerak. Hain zuzen ere, soldaten igoerak ez dirudi eragin esanguratsurik duenik inflazioaren tasetan.

KPIaren indize orokorra bezala, azpiko inflazioa ere maila apaletan kokatu zen eta nolabaiteko egonkortasunari eutsi zion, azken hilekoetan %1eko langa ia inoiz gainditu gabe. Osagaiak aztertuta, adierazi behar da bai landutako elikagaiak bai energiaren bestelako industriako ondasunek ia ez zutela inolako eraginik izan azpiko inflazioaren hazkunderan. Beraz, igoera horren erantzulea zerbitzuak izan ziren. Historikoki, zerbitzuek erresistentzia handiagoa erakutsi dute beren prezioak moteltzeko orduan, neurri batean sektore hori kanpoko lehiatik babestuago dagoelako.

Halere, elementu hegakorrenek, hondar inflazioan biltzen baitira, erakutsi zuten beherantzko joerarik biziena. Alde batetik, landugabeko elikagaiak urte arteko aldakuntza tasa negatiboak erakutsi zituzten. Halakorik ez zen inoiz gertatu 2015eko hastapenetik. Beste aldetik, energia alorreko produktuak urrunduz gero 2018ko erdialdean jaso zituzten emaitzetatik, garai hartan prezioen hazkundera bi zenbakietara iritsi baitziren.

Analisia taldeka egiten denean, baieztatuta geratzen da garraioa dela oraindik talde inflazionistena eta bere aldakuntza tasak oso gutxi leundu zituen (2019ko maiatzean zein 2018ko batez bestekoan %3,4 hazi zen), nahiz eta une jakin batzuetan tasa askoz ere altuagoak edo baxuagoak izan zituen, erregaien salneurriak bizi dituen gorabehera handien ondorioz. Tasa negatiboak jaso zituzten taldeen artean, azpimarratu behar da, bereziki, etxebizitzarena (%-0,5), bere jaitsieraren tamainagatik, argindarrak izan zuen merkatzearen ondorioz. Neurri txikiagoan, aisialdia eta kultura taldeak ere jaitsiera esanguratsua (%-0,8) izan zuen prezioetan, turismo paketeen prezioetan hauteman zen jaitsieragatik.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	Maiatza
Indize orokorra	2,0	1,6	1,8	2,2	1,6	1,3	1,0
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,2	1,5	2,2	1,8	0,9	0,7	0,1
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,7	2,2	2,4	2,7	2,0	1,4	-0,2
Jantziak eta oinetakoak	0,7	1,1	1,3	1,2	1,0	0,8	1,2
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	3,7	2,6	2,0	4,9	3,3	2,0	-0,5
Etxeko hornidura	-0,3	0,3	0,4	0,4	0,7	0,8	1,1
Medikuntza	1,1	0,2	0,1	0,1	0,4	0,0	0,0
Garraioa	4,3	3,4	4,2	5,2	2,7	3,0	3,4
Komunikazioak	1,3	2,4	2,6	2,7	2,2	2,0	0,3
Aisia eta kultura	1,9	-0,4	-0,1	-1,2	-0,5	-1,4	-0,8
Irakaskuntza	1,6	1,0	1,0	1,0	0,8	0,8	0,8
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,8	1,9	1,7	1,8	2,1	1,7	2,3
Besteak	0,7	0,7	0,4	1,0	1,2	1,5	1,9

Iturria: INE.

IPRIari dagokionez, inflazioaren presioak berriro areagotu ziren, urte hasieran emaitza apalagoak jaso eta gero. Igoera hori nagusiki indizea osatzen duten bi taldetan gauzatu zen. Alde batetik, kontsumo iraunkorreko ondasunetan, 2018an zehar aldakuntza tasa negatiboak aurkeztu ondoren apirilean, ezagutu den azken datua hori baita, %1,7an kokatu zirelako. Eta beste aldetik, energian (%10,7). Energiaren salneurriak ez diote utzi hazteari aurtengo urtea hasi zenetik, petrolioaren prezioen urte arteko aldakuntzarekin bat eginez. Hala eta guztiz ere, datozen hilekoetan joera hori irauliko dela aurreikusten da, petrolio gordinaren salneurriak une hauetan beherantz egin duelako.

Negoiazio kolektiboari dagokionez, EAEko lan hitzarmenek beste urrats bat eman zuten atzera aurtengo lehen lauhilekoan, 2018ko epe horretan suspertze arina izan eta gero. Hain zuzen ere, EAEko 25.000 langilek bakarrik berritu zituzten beren lan baldintzak (guztizkoaren %4,6). Kopuru hori 2018ko apirila arte lan hitzarmena berritu zuten 60.000tik gorakoa baino askoz ere txikiagoa da. Geldialdi hori, nagusiki, urtean bertan sinatutako hitzarmenen soldata igoerari eragin zion, beren gehikuntza tasa iazko epe berean jasotakoa baino hamarren bat apalagoa izan zelako (%2,0 aurreko %2,1aren aldean).

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2017	2018	2019
Indarrean dauden hitzarmenak:	0,6	1,0	1,5	1,9	1,9
- Urtean zehar sinatutakoak	0,7	1,1	1,7	2,2	2,0
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	0,6	1,0	1,5	2,0	1,9
- Enpresako hitzarmenak	0,6	1,1	1,5	1,6	1,8

(*) 2019ko apirila arte adostutako lan hitzarmenak
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, lan kostuen estatistikak aurreko hiruhilekoarenak baino hazkunde txikiagoak aurkeztu zituen, baita lan hitzarmenetako igoerarena ere. Horregatik, ez lan kostuen guztizkoak (%1,7) ez lan egindako ordu bakoitzeko lan kostuen guztizkoak (%0,0), dirudienez, ez dituzte nabaritu gutxieneko soldataren azken gehikuntza eta funtzionarioen soldata igoera, printzipioz pentsa zitekeenaren kontra.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2018				2019
			I	II	III	IV	I
Lan kostu guztiak langileko	0,5	2,5	1,6	1,6	3,7	3,1	1,7
- Soldata kostua guztira	0,1	2,4	1,6	1,1	3,6	3,2	1,5
- Bestelako kostuak	1,6	2,9	1,7	3,2	3,8	2,8	2,3
Lan kostu guztiak orduko	0,2	2,3	5,0	-2,5	4,1	2,3	0,0
- Soldata kostua guztira	-0,2	2,1	4,9	-3,1	4,1	2,4	-0,2
- Bestelako kostuak	1,2	2,7	5,1	-1,0	4,4	2,0	0,5
Adostutako lan orduak	-0,1	0,3	0,5	0,3	-0,2	0,5	-0,1
Benetan egindako lan orduak	0,0	0,3	-3,2	4,3	-0,5	0,8	1,7

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzak aurkeztu dituen 2019ko lehen lauhilekorako aurrekontu eragiketek portaera positiboa erakutsi zuten, finantzazio ahalmena %84,7 handituta eta zenbaki absolutuetan 341,1 milioi euroetara iritsita. Berriro ere, goranzko bilakaera hori diru sarrera arrunten portaera onean oinarritu zen (%6,7), zergen bidezko diru bilketak hazkunde nabarmena eduki zuelako, ekonomia jardueraren une onari dagokion moduan.

Era berean, gastu arrunt guztiek, transferentzia arruntak izan ezik, gorakadak izan zituzten, baina beraien hazkunde globala (%2,6) diru sarrera arruntena baino apalagoa izan zen. Talde hori osatzen duten kapitulu guztien artean, finantza gastuen gorakada (%16,6) nabarmendu behar da, zorpetze gordinaren igoerak eraginda. Aipatu diren aldakuntza guztien ondorioz, aurrekontuaren superabita ia bikoiztu egin zen (%94,5) aurreko urteko epealdian zegoenaren aldean.

EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUKO ERAGIKETAK (urtarrila-apirila)

Mila euro

	2018	2019	Aldaku. %
1. SARRERA ARRUNTAK	3.232.273	3.448.554	6,7
2. GASTU ARRUNTAK	2.948.824	3.025.167	2,6
Langileen gastuak	596.310	649.314	8,9
Funtzionamenduko gastuak	1.130.472	1.144.952	1,3
Finantza gastuak	60.922	71.051	16,6
Transferentzia arruntak	1.161.120	1.159.850	-0,1
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	283.449	423.387	49,4
4. KAPITALEKO SARRERAK	9.035	6.642	-26,5
5. KAPITALEKO GASTUAK	107.870	88.967	-17,5
Inbertsio errealak	16.601	9.665	-41,8
Kapitaleko transferentziak	91.269	79.302	-13,1
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	184.614	341.062	84,7
7. FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	3.832	4.889	27,6
8. FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	360.041	745.064	100,2
9. AURREKONTU SUPERABITA/DEFIZITA (6+7+8)	548.487	1.066.848	94,5
10. AURREKONTU SUPERAB/DEFIZITA KUTXA TERMINOTAN	-516.377	860.336	-

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila.

Beste aldetik, zergen bidezko diru bilketa erritmo onean hazi zen eta %2,9 handitu zen apirila arte, ekonomiaren bilakaera onari erantzunez, zeren eta zertxobait apaldu bada ere, oraindik hazkunde erritmo altuei eusten baitie. Zehatz-mehatz adierazita, aurtengo lehen lau hilekoetan 4.572,9 milioi euroko diru bilketa lortu zen. Diru kopuru hori iazko epe berean jaso zena baino 130 milioi gehiago dira.

Zuzeneko zergen batuketak gehikuntza tasa txikia (%0,7) aurkeztu zuen, sozietateen gaineko zergak tasa negatiboak (%-3,5) izan zituelako eta PFEZk tasa positiboak eskuratu zituen arren, tasa horiek ez zirelako tamaina handikoak (%0,5) izan. Egia da urte bateko lehen lau hilabeteko epea esanguratsutzat jo daitekeela jadanik, atxikipenen bi hiruhilekoetako diru sarrerak erregistratuta daudelako, baina data horretan oraindik ez zen amaitu zerga kitatzeko kanpaina. Beraz, hileko batzuk itxaron beharko da jakiteko ekitaldiak aurreikuspenei erantzuteko gai izango den ala ez.

Errentaren gaineko zergaren urte arteko aldakuntza tasa amatasunaren prestazioei lotutako diru kopuruen itzulketak baldintzatu zuen, zergaren diru bilketa lastatu zuelako. Hala eta guztiz ere, lanaren etekinen atxikipenek hazkunde sendoa (%5,2) jaso zuten berriro, enpleguaren hazkundeari esker eta enpresetan adosten hasi diren soldata igoerei esker.

PFEZa ez bezala, sozietateen gaineko zergak, zuzeneko zergen beste osagai garrantzitsua baita, aldakuntza tasa negatiboak (%-3,5) aurkeztu zituen, batez ere ondare irabazien atxikipenek eta kapital higigarriaren atxikipenek bilakaera txarra izan zutelako. Pasa den ekitaldiaren azken hilekoetan, errenta horiek nabarmendu ziren, suspertu egin zirelako, dibidenduen ordainketa aurreratu zelako.

Analisia zeharkako zergetan fokatuta eta BEZarekin hasita, argitu behar da zerga horren diru bilketa negatiboa izan dela apirila arte (%-0,6), baina jaitsiera hori Estatuarekin egiten den zerga doikuntzak (%13,0) konpentsatu zuen. Bertan kudeatutako atalean zergak izan zuen moteltzearen arrazoiak gastuaren gehikuntza txikiagoa eta, batez ere, itzulketen hazkunde sendoa dira. Itzulketen kontu hori garrantzitsua da 2018ko epe berean nahiko maila apala izan zuelako, oraingo alderaketa areagotuz.

Azkenik, zerga bereziek bizitasun nabarmena (%10,5) erakutsi zuten, nagusiki alkoholaren gaineko zergak (%40,0) eta hidrokarburoen gainekoak (%11,9) hazkunde garrantzitsuak eskuratu zituztelako. Eraitza hori Estatuan, epealdi berean, lortutakoa baino nabarmen hobea da, zeren eta lurralde horretan gehikuntza orokorra %5,2 izan zelako, hidrokarburoena %7,0 izan zen bitartean.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-apirila)

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa		
	2018	2019	% Ald. 19/18
PFEZ	1.823.831	1.832.822	0,5
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	1.730.487	1.820.924	5,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	76.833	56.407	-26,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	28.907	29.338	1,5
- Ondare irabazien atxikipenak	25.128	8.895	-64,6
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	30.420	43.922	44,4
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	58.496	62.489	6,8
- Kuota diferentzial garbia	-126.441	-189.155	-49,6
Sozietateen gaineko zerga	183.471	177.003	-3,5
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	76.833	56.407	-26,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	28.907	29.338	1,5
- Ondare irabazien atxikipenak	25.128	8.895	-64,6
- Kuota diferentzial garbia	52.603	82.362	56,6
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	-4.419	16.203	-
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	39.383	36.314	-7,8
Ondarearen gaineko zerga	3.839	8.096	110,9
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	-	-	-
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	10.744	493	-95,4
ZUZENKO ZERGAK GUZTIRA	2.056.849	2.070.931	0,7
BEZaren bertoko kudeaketa	1.476.746	1.467.906	-0,6
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	50.346	57.060	13,3
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	14.686	17.088	16,4
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	7.393	9.178	24,1
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	522.596	577.346	10,5
Aseguru sarien gaineko zerga	24.646	24.652	0,0
Joko jardueren gaineko zergak	2.632	2.410	-8,4
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	1.112	812	-27,0
Iraungitako zergak	-3.036	-938	69,1
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	2.097.121	2.155.515	2,8
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	35.718	30.931	-13,4
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	4.189.688	4.257.377	1,6
BEZaren doikuntza	428.393	483.911	13,0
Zerga berezian doikuntza	-175.814	-168.423	4,2
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	4.442.267	4.572.865	2,9

Iturria: Foru aldundiak.

Arlo finantzarioa

2018ko amaieran ez bezala, 2019ko lehen hilekoen ezaugarria finantza merkatuen portaera ona izan zen. Merkataritza alorreko tentsioak bideratu izanak, banku zentral nagusien moneta politikaren laxotasunak eta espero zena baino hobeak izan diren datu ekonomikoek egonkortasuna eta inbertitzaileen baikortasuna ekarri zuten. Horren ondorioz, burtsen balioa oso nabarmen handitu zen eta arrisku sariak, ordea, jaitsi. Hala eta guztiz ere, maiatzean dena aldatu zen bat-batean. Ezegonkortasunaren arrazoi behinena merkataritza tentsioen okertzea izan zen, hasieran AEBek Txinaren kontra (Trumpek %10,0tik %25,0ra igo zizkien muga zergak herrialde horren produktuei) eta hilekoaren amaieran AEBek Mexikoren kontra. Neurri horiek ezustean harrapatu zituzten merkatuak eta urduritasun handia eragin zuten inbertitzaileengan, hegakortasuna eta arriskua saihesteko nahia berriro areagotuz.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2017	2018	2018				2019	
			Aben.	Urtar.	Otsaila	Martxoa	Apiri.	Maiat.
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentrala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	1,50	2,50	2,50	2,50	2,50	2,50	2,50	2,50
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,50	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75
Txinako Banku Popularra	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35
Brasilgo Banku Zentrala	7,00	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50	6,50
Alemaniako 10 urteko zor publikoarekiko aldea (oinarri puntuak)								
Espainia	114	117	117	106	101	119	100	93
Grezia	369	413	413	372	349	382	336	311
Portugal	151	147	147	149	129	132	110	102
Erresuma Batua	76	102	102	107	111	106	116	110
Italia	157	252	252	248	249	258	256	291

Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Ziurgabetasun handiagoko testuingurua egon arren, banku zentralek bere horretan utzi zituzten beren politikak eta epe laburrean aldaketarik ez egiteko asmoa helarazi zuten. Izan ere, Europako Banku Zentralak (EBZ) interes tasen igoera gutxienez 2019ko amaiera arte atzeratu zuen eta finantzaziorako eragiketa berriak iragarri zituen, 2019ko irailetik 2020ko martxora bitartean bideratuko direnak. Eragiketa horien bitartez, finantzaziorako baldintza onak eta

moneta politikaren transmisio erraza lortu nahi zituen. Erreserba Federalak igoeren erritmoa aurreko bileretan adierazitakoa baino motelagoa izango dela adierazi zuen. Beraz, 2019an zehar bere horretan uzteko asmoa dauka eta igoera bat egingo du 2020an. Ingalaterrako Bankuak, Japoniakoak eta Txinakoak ere bere horretan utzi zuten beren moneta politika.

Zorraren bigarren mailako merkatuan, zor publikoaren errentagarritasunak jaitsiera orokorra izan zuen aurtengo lehen hilekoetan. Espainian, aurrekontuak onartu ez izanak eta hauteskunde deialdi aurreratu izanak ez zuten presiorik bat ere ezarri bonuan edo arrisku sarian. Inbertitzaileek ekonomia espainiarraren oinarri sendoei lehentasuna eman zieten, enplegua sortzen ari delako eta Europako batez bestekoa baino gehiago hazten ari delako. Horiek horrela, maiatzean, arrisku prima 93 oinarri puntuetara jaitsi zen, %0,72ko errentagarritasunarekin. Zenbaki horiek kontraste egiten dute zor subiranoaren krisiaren une txarrenetan jaso zirenekin, garai hartan eskatzen zen interes tasa %6,0ra iritsi zelako.

Errentagarritasuna txikia den arren, eta ekainean are txikiagoa da (%0,50era iritsi zen ekainaren 14ean, gaur arte jaso den txikiena), inbertitzaileek zor nazionala erosteko nahiari eutsi zioten. Hainbat arrazoi daude horretarako. Alde batetik, bonu alemaniarrak errentagarritasun negatiboak ematen ditu martxotik (maiatzaren amaieran %-0,21, hamar urteko bonu batentzat ezohiko tasa bat delarik), beraz inbertitzaileek Estatu germaniarrari ordaindu behar diote babestzat jotzen diren balio horiek erosteko. Beste aldetik, banku italiarren egoera txarrak eta Europako aurrekontu disziplinari bota dioten erronkak ziurgabetasun handia ekarri dute, bertako bonuaren erakargarritasuna deuseztatuz. Azkenik, Frantziako zorrak errentagarritasun nabarmen txikiagoa eskaintzen du espainiarrak baino, %0,266koa, alegia.

Dibisen merkatuari dagokionez, EBZk iragarri dituen neurri hedakorrek eta Eurogunean espero baino okerragoak ziren adierazle makroekonomikoak argitaratu izanak zertxobait gorarazi zuten dolarrak euroaren aldean zuen kotizazioa 2019ko lehen hiruhilekoan. Apirilean eta maiatzean goranzko joera horrek bere horretan jarraitu zuen, merkataritza alorreko tentsioek sortutako ziurgabetasuneko testuinguru batean. Izan ere, 2018ko amaieratik 2019ko maiatzeko amaierara doan epealdian, euroak balioaren %1,8 galdu du dolarraren aldean, %3,9 yenaren aldean eta %2,9, berriz, libera esterlinaren aldean. Zehazkiago, maiatzean euroak 1,118 dolar, 122,95 yen eta 0,872 libera balio zuen. Epe berean, euroak %1,0 galdu zuen truke tasa efektibo nominalaren terminoetan Euroguneako merkataritza bazkide nagusietako 38 herrialdeen diruaren aldean.

Burtsa merkatuetan, adierazle nagusiek igoera esanguratsuak lortu zituzten 2018ko amaieratik 2019ko apirilera bitartean, moneta politika normalizatzeko egutegia atzeratuko delako

itxaropenak eta banku zentral nagusien geroko baieztapenak bultzatuta. Hain zuzen ere, aurtengo lehen lau hilekoetan indize nagusi guztiek, baita Ibex35ak ere, %10,0tik gorako irabaziak izan zituzten, Eurostoxx-50-en eta Standard & Poor's-en kasuetan %17,0tik gorakoak izan zirenak.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2017	2018	2018				2019	
			Aben.	Urtar.	Otsaila	Martxoa	Apiri.	Maiat.
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,129	1,181	1,138	1,142	1,135	1,130	1,124	1,118
Yena/euro	126,7	130,4	127,88	124,34	125,28	125,67	125,44	122,95
Libera esterlina/euro	0,876	0,885	0,898	0,886	0,873	0,858	0,862	0,872
Yena/dolarra	112,2	110,4	112,3	108,9	110,4	111,2	111,6	109,9
€ efektibo nominala	96,6	99,0	98,4	97,8	97,4	96,9	96,7	97,4
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	7,4	-15,0	-15,0	6,1	8,6	8,2	12,1	5,4
Eurostoxx-50	6,5	-14,3	-14,3	5,3	9,9	11,7	17,1	9,3
Dow Jones	25,1	-5,6	-5,6	7,2	11,1	11,2	14,0	6,4
Nikkei 225	19,1	-12,1	-12,1	3,8	6,8	6,0	11,2	2,9
Standard & Poors	19,4	-6,2	-6,2	7,9	11,1	13,1	17,5	9,7

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte.
Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Maiatzean, Donald Trumpek Txinaren eta Mexikoren kontra abiatu zuen merkataritza erasoaldiak eta AEBek telefono adimenduak egiten dituen Huawei enpresa txinatarrari ezarritako zigorrak burtsak astindu zituzten eta indize nagusiak kaltetu. Izan ere, zenbaki gorriak nagusitu ziren berriro Europan eta Eurostoxx-50 %6,7 jaitsi zen apirileko mailaren aldean. Espainiako Burtsak ere nabaritu zuen egoera, Mexikoko arazoak gehien kaltetu ditzakeen merkatu europarretako bat delako. Ibex35a %5,9 jaitsi zen eta ozta-ozta kokatu zen 9.000 puntuen gainera. Urteko bigarren jaitsierarik handiena da. Atlantikoaren beste aldean emaitzak ez ziren hobeak izan. Wall Streeten, Huawei iri ezarritako zigorrak enpresa askori egin zien kalte eta Dow Jones indizea %6,7 jaitsi zen, S&P 500 indizea %6,6 murriztu zen bitartean. Aurreko guztiak nabarmen gutxitu zituen lehen bost hilekoetako irabaziak.


Euriborrak, berriz, 2018ko apiriletik 2019ko otsailera bitartean (%-0,108an kokatzera iritsi zen otsailan) hamaika hilekoz igoera txikiak baina jarraituak jaso eta gero, martxoan behera egin

zuen berriro. Apirilean beheranzko joerari eutsi zion eta maiatzean, merkatuen beldurrak kutsatuta, berriro jaitsi zen. Ekainaren 11n, gaur arte erregistratu den azken datua baita, hipoteken erreferentzia indize nagusia %0,178an kokatu zen. Tasa hori oso hurbil dago 2018ko otsailean jaso zen %0,191 hartatik, inoizko txikiena baita. Oraingoz, epe laburrean eta ertainean ez da igoerarik hautematen.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Espainiako Bankuak banku maileguez egiten duen inkestak adierazten du aurtengo lehen hiruhilekoan kreditu eskaera gutxitu zela Espainian, hala enpresek egin nola familiek kontsumorako eta beste helburuetarako egin zutena. Aitzitik, familiek etxebizitza erosteko egin zutena handitu zen. INEK hipotekei buruz argitaratu dituen datuek ere baieztatzen dute joera hori. Hain zuzen ere, 2019ko lehen hiru hilekoetan, EAEn 4.842 hipoteka formalizatu ziren, iazko epe berean sinatu zirenak baino %6,6 gehiago eta 2018ko laugarren hiruhilekoan adostu zirenak baino 777 hipoteka gehiago. Hazkunde horrek amaiera eman diezaioke 2018ko bukaeran hasi zen beheranzko joerari, baina zuhurtziaz jokatu behar da datu horiek irakurtzeko unean. Alde batetik, Auzitegi Gorenak egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaz erabaki bat hartu zuen eta gero irizpidea aldatu zuenez, 2018ko amaieran bertan behera geratu ziren akordio asko aurtengo lehen hiruhilekora geroratu ziren. Beste aldetik, aurtengo Aste Santuaren egutegiak ere eragina izan du, apirilean ospatu baita aurten. Beraz, bigarren hiruhilekoaren datuak aztertu arte itxaron beharko da jakiteko beheranzko joera benetan irauli ote den ala ez.

Beste aldetik, EBZk epe laburrean interes tasei dagokien politika ez dela aldatuko behin baino gehiagotan iradoki duen arren, Espainian hipoteka finkoen alde –zeinen kostuan euriborraren gorabeherak ez baitute inolako eraginik izaten- egiten den apustuak aurrera jarraitzen du. Interes tasa finkoa zuten mailegu hipotekarioak %41,9 izan ziren eta tasa aldakorra zutenak, berriz, %58,1, INEren azken estatistika eskuragarriaren arabera. Datu horrek kontrastea egiten du krisi garaiko datuekin, non interes aldakorreko hipotekak %96,6ra iritsi baitziren.

Aurreikuspenak

2019rako eta 2020rako, munduko ekonomiaren hazkunde aurreikuspenek bizitasun neurritsuei eusten diete, nahiz eta beheranzko joera arina hautematen den. Consensus Forecastsek maiatzeko txostenean argitaratu dituen aurreikuspenek munduko ekonomiaren hazkundera %2,8an kokatzen du 2019an eta %2,7an, berriz, datorren urtekoa. Oro har, hazkunde tasa esanguratsuak eskuratuko dira oraindik, baina hazkunde erritmoa 2018koa baino zertxobait leunagoa izango da. Eszenategi makroekonomiaren alderdi negatiboa arrisku geopolitikoen metaketa garrantzitsua da. AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gerra, Brexitaren inguruko zalantzak eta muturreko alderdi politikoen ugaritzea dira ziurgabetasuna ekonomia testuinguruan areagotu duten osagai nagusiak. Osagai horiek zer norabide hartzen duten, horren arabera izango da hazkundera.

Munduko ekonomia handiei dagokienez, AEBek moteltzeko joera erakutsiko dute epe laburrean. Consensus Forecastsen arabera, herrialde horretako ekonomia %2,6 haziko da 2019an eta apaltzeko joerak aurrera egingo du datorren urtean ere, %1,9ko aldakuntza tasa jaso arte. Ekonomia estatubatuarra oinarri sendo eta dinamikoetara eutsi die, eta herrialde horretan ezarri diren zerga pizgarri handiek garapenean lagunduko dute oraindik. Halere, ekonomia hori gehiegi berotzeko arriskuan egon daiteke, ziklo hedakor luzeari amaiera emanez. Inflazioa %2,0tik gora egoteak interes tasak igoarazi ditzake, jarduera erritmoa geldotuz eta dolarraren balioa handituz. Beste aldetik, oraingo administrazioak bideratu duen politika protekzionistaren tentsioa areagotuko balitz eta beste herrialde batzuetara hedatuko balitz, merkataritzaren narriadurak, finantza merkatuetako gorabeherak eta eragileen ziurgabetasun gero eta handiagoak oso eragin negatiboa izan dezakete munduko ekonomian.

Beste aldetik, Txinako ekonomiak moteltzeko norabide leuna markatuko du eta NDFk %6,3an eta %6,1ean kokatu ditu, hurrenez hurren, 2019rako eta 2020rako hazkunde aurreikuspenak. AEBekin dituen merkataritza tentsioez gain, Asiako erraldoiaren gainean dagoen beste arrisku bat kredituaren gehiegizko hazkundera da, herrialde hartako finantza sisteman eta, hedaturaz, mundukoan, eduki ditzakeen ondorio kaltegarriengatik. Alde positiboan, azpimarratu behar da

bertako hazkunde tasak %6,0aren inguruan jarraitzen duela, ekoizpen eredu txinatarra modu ordenatu batean eraldatzeko bideratu diren egitasmoei esker.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Munduko ekonomia	3,1	2,8	2,7	2,9	2,6	2,6
AEB	2,9	2,6	1,9	2,4	1,9	2,1
Kanada	1,8	1,4	1,7	2,3	1,8	2,0
Japonia	0,8	0,6	0,4	1,0	0,6	0,9
Eurogunea	1,8	1,1	1,3	1,7	1,4	1,4
Europar Batasuna	1,9	1,4	1,5	1,8	1,5	1,7
Alemania	1,4	0,8	1,5	1,8	1,5	1,6
Espainia	2,6	2,2	1,8	1,7	1,2	1,5
Frantzia	1,6	1,3	1,3	1,9	1,2	1,5
Herbehereak	2,7	1,6	1,6	1,7	2,4	1,6
Italia	0,9	0,1	0,5	1,2	0,9	1,2
Erresuma Batua	1,4	1,4	1,4	2,4	2,0	2,0
Asia eta Ozeano Barea	4,7	4,5	4,4	2,0	1,9	2,1
Ekialdeko Europa	3,2	1,9	2,6	6,3	6,4	5,5
Amerika Latinoa (Venezuela ezik)	1,4	1,7	2,5	9,5	7,9	6,3

Iturria: Consensus Forecasts (2019ko maiatza).

Eurogunean, nazioarteko erakundeek beherantz berrikusi dituzte aurreikuspenak. Consensus Forecastsek zenbatetsi duen hazkunde ekonomikoa %1,1ean kokatzen da 2019rako eta %1,3an, berriz, datorren urterako. Europako Batzordeak, udaberriko txostenean, %1,2an eta %1,5ean kokatu zuen hazkunde tasa aipatu diren bi urte horietarako, hurrenez hurren. Dinamismoaren galera nazioarteko testuinguruaren moteltzean eta kontsumitzaileen konfiantzak izan duen apaltze leunean oinarritzen da. Hala eta guztiz ere, erritmo txikiagoan bada ere, barne eskariak hazten jarraituko du, prezioak gutxi igotzen direlako, herrialde batzuetan neurri fiskal hedakorrak onartu direlako, enplegua sortzen ari delako eta enpresen ekoizteko ahalmenaren erabilera malla altua delako. Txanponaren infrentzuan, merkataritza politika murriztaileak eta Brexita gauzatzeko modua daude.

Europako moneta politikari dagokionez, EBZk 2019an eta 2020an hedatze kuantitatiboari eta interes tasa apalei eutsiko diela espero da. Hartuko dituen neurrien artean, banku sisteman

likidezia sartzea, zor publikoko bonuetan berriro inbertitzea eta erreferentziako tasak maila apaletan eta modu egonkorrean uztea dira espero direnak. Beraz, ez da interes tasen igoerarik aurreikusten 2020ko erdialdea arte. Finantzaziorako baldintza onuragarri horiek barne eskaria sustatuko dute eta moneta batasuneko herrialdeen zor publikoari mesedea egingo diote.

Espainiako ekonomiarentzat aurreikusi den hazkundeak, Consensus Forecastsek zenbatetsiak, %2,2an kokatzen du 2019ko tasa eta %1,8an, berriz, 2020koa. Cepredek, berriz, %2,4ra igotzen du 2019ko emaitza eta %2,0ra datorren urtekoa. Ekonomia espainiarrak moteltzeko joera leunari atxikiko dio, nazioarteko testuinguru ezkorragoak baldintzatuta. Merkataritza bazkide nagusien egoera ekonomikoak kanpo arloaren ekarpen txikiagoa ekarriko du, aurreikuspen horren arabera. Ekonomia globalizatu baten barruan, kanpoko arriskuek, barrukoek baino gehiago, ziurgabetasun handiagoa ekartzen dute. Akordiorik gabeko Brexita, Europako hegoaldeko beste herrialde batzuen (Italia eta Grezia) egoera zaila eta Amerika Latinoko herrialde batzuetan, non enpresa espainiar askok lan egiten baitute, bideratu diren politikak porrot egitea dira beheranzko arrisku garrantzitsuetako batzuk.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2019ko maiatza)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019			2019	2020
	II	III	IV		
BPG	2,4	2,4	2,3	2,4	2,0
Kontsumo pribatua	1,9	2,0	2,2	1,9	1,9
Kontsumo publikoa	1,9	1,8	1,7	1,8	1,7
Kap. finkoaren eraketa gordina	4,0	4,2	4,6	4,4	4,7
- Inbertsioa ekipamenduan	6,1	6,0	5,9	6,2	5,9
- Inbertsioa landutako aktibotan	2,3	3,0	3,7	2,6	4,5
- Inbertsioa eraikuntzan	3,4	3,7	4,5	4,1	4,5
Barne eskaria	2,3	2,3	2,4	2,3	2,3
Esportazioak	0,0	1,2	2,2	0,7	3,4
Inportazioak	-0,6	1,0	2,5	0,4	4,6

Iturria: Ceprede.


Lanaren testuinguruan, Cepredek moteltze arina aurreikusten du eta enpleguaren hazkunde tasa %2,3an eta %1,7an kokatzen du, hurrenez hurren, 2019rako eta 2020rako. Langabezia tasaren bilakaeraz egin dituen aurreikuspenek beheranzko norabidea marrazten dute kontuan

hartu den epealdian eta jaisten jarraituko du %13,8ra arte, 2019ko batez bestekoan, eta %13aren ingurua arte 2020an. Enplegu sorreraren tasak txikiagoak izateak eta biztanleria aktiboa hazteak langabezia tasaren jaitsiera erritmoa leunduko dute.


Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAerako ekonomia aurreikuspenak eguneratu ditu, ingurune makroekonomikoaz eskuragarri dauden datuak eta EAEko ekonomiaren beraren koiuntura adierazleak erabiliz. Izan ere, 2019rako espero den batez besteko hazkunde tasa %2,3an kokatzen da orain, aurreko hiruhilekoan argitaratu zen emaitzaren aldean hamarren bat altuagoa den tasa bat. Orobat, 2020an gehikuntza tasa zertxobait apalduko dela eta %2,0ra iritsiko dela zenbatetsi da. Eusko Jaurlaritzak 2019rako egin duen aurreikuspen eguneratua erdiko eremuan kokatzen da EAEko ekonomiarentzat beste erakunde batzuek egin dituzten aurreikuspenen artean. Beheko muturrean, Hispalink-ek eta Cepredek kalkulatu duten %2,1 hori kokatzen da eta goiko muturrean Funcasek kalkulatu zuen %2,7a dago. 2020 urterako, berriz, hazkunde aurreikuspenak Ceprederen %1,7aren eta BBVAren %2,0aren artean kokatzen dira.

2019ko eta 2020ko aurreikuspenak Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2019



Aurreikuspen panela 2020



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, CEPREDE (2019ko maiatza), BBVA (2019ko ekaina), Confebask (2018ko abendua), Laboral kutxa (2018ko abendua), Funcas (2018ko azaroa) eta Hispalink (2018ko abendua BEGren aldakuntza).

Barne eskaria oraindik EAEko ekonomiaren hazkundearen bultzagile nagusia izango da. Agregatu horrek 2,6 puntu ekarriko dizkio BPGaren gehikuntzari 2019an eta 2,4 puntu, berriz, 2020an. BPGak erakutsi duen moteltzea barne eskariaren osagai guztien bizitasun motelagoan islatzen da. Familiak kontsumoan eginiko gastua lan merkatuaren bilakaera onean, kreditua lortzeko baldintza egokietan eta aberastasun efektuan oinarrituko da. Hala ere, kontsumo pribatuaren hazkundera geldia egotzeko da, erostetarako egiteko igurikimenak neurritsuagoak izango direlako, ekonomia orokorraren etorkizunaz horren baikorrak ez direlako. Beste aldetik, kapital eraketa gordina agregatu dinamikoena izango da, epe laburrean enpresek igurikimen onak edukiko dituztelako eta finantzaziorako baldintzak egokiak izango direlako. Nazioarteko merkatuen hazkunde mugatuaren ondorioz, kanpo saldoak ekarpen negatiboa egingo dio hazkunderari 2019an zein 2020an.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2019ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2019			2019	2020
	II	III	IV		
BPG	2,3	2,3	2,2	2,3	2,0
Azken kontsumoa	2,2	2,0	2,1	2,1	1,8
Kontsumo pribatua	2,3	2,1	2,1	2,2	1,9
Kontsumo publikoa	1,8	1,8	1,9	1,9	1,7
Kapital eraketa gordina	3,9	3,7	3,7	3,9	3,7
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,5	2,5	2,6	2,4
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,4	-0,2	-0,3	-0,3	-0,4
Lehen arloa	-7,6	1,5	-5,3	-0,7	-7,8
Industria eta energia	1,2	1,6	1,9	1,3	1,8
Eraikuntza	4,3	3,5	3,3	4,0	2,7
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,3	2,5	2,2
Balio erantsi gordina	2,3	2,3	2,2	2,3	2,0
ekoizkineko gainerako zergak	2,1	2,0	1,9	2,1	1,8
BPGaren deflatoarea	1,4	1,5	1,7	1,4	1,8
Enplegua	1,8	1,7	1,4	1,7	1,3
Langabezia tasa	10,0	9,7	9,7	9,9	9,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Jarduera adarrak aztertuta, sektore guztiek, lehen arloak izan ezik, EAEko balio erantsiaren hazkundeari ekarpen positiboak egingo dizkiotela aurreikusten da. Nekazaritza eta arrantza jarduerak narriadurako norabidea erakutsiko dute kontuan hartu diren bi urteetan. Gainontzeko sektoreetan, bizitasun handia espero da, baina moteltzeko testuinguru batean. Izan ere, industriaren gehikuntza tasa, hurrenez hurren, %1,3an eta %1,8an kokatuko da 2019an eta 2020an. Eraikuntzak izango ditu hazkunde tasa altuenak eskaintzaren ikuspegitik, suspertze iraunkor batekin. Zerbitzuek sendotasuneko zantzuak erakutsiko dituzte eta %2,5eko igoera lortuko dute, batez beste, 2019an, datorren urtean %2,2aren inguruan kokatzeko.

Lan merkatuan, oraingo aurreikuspenek %1,7an uzten dute 2019ko enplegu sorrera eta %1,3an, berriz, datorren urtekoa. Tasa horiek adierazten dute 16.000 lanpostu inguru sortuko direla aurten eta 12.500 enplegu gehiago 2020an. Langabezia tasari dagokionez, 2019ko batez bestekoan %9,9ra murriztuko dela eta 2020an %9,7ra jaitsiko dela aurreikusten da. Hori horrela izanda, 2019ko hirugarren hiruhilekotik aurrera langabezia tasa %10,0aren azpian kokatuko dela eta mantenduko dela espero da.